

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## Asteazkenean hasita, Urnieta jaietan murgilduko da

Sanmieletan murgilduko dira urnietarrak, hurrengo egunetan. Eta jarraian datoz Xoxokako jaiak / 2-9

AIURRI

## Ospakizuna Andoainen

Andoaingo Euskaraldiaren aurkezpen-festa, ostiral arratsaldeko 19:00tan hasita / 11

**Pentatloiarren  
olinpoan,  
Gabirondo eta  
Arruti urnietarrek  
dizdira egin zuten** / 12

**"Parketarrak"  
euskararen aldeko  
egitasmoa abiatuko  
dute berriro,  
Andoainen** / 15

**EUSKARALDIA**

HITZETZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra


# IRAILAK 30, OSTIRALA

# AURKEZPEN-FESTA

## ANDOAIN

**EUSKARALDIA**

**PLAZA MOREA  
BEKOPLAZA**



**19:00**  
Plaza Morea  
**TXALAPARTA**  
Maizorri taldea.

**19:30**  
Plaza Morea-Bekoplaza  
**PERKUSIOA**  
Mulamborekin  
kalejira.

**20:15-21:00**  
Bekoplaza  
**AFARI  
MUSIKATUA**  
Bokata afaria.

**21:00-22:00**  
Bekoplaza  
**KONTZERTUA**  
Elektropottote.



Paula Sanchez eta Asun Fernandez, dantza-sokako partaideak. AIURRI

# “Hainbat belaunaldik osatzen dugu soka”

Dantza-soka plazaratuko dute urriaren 2an, igandearekin, jaiei amaiera biribila emateko. Entseguetan daude murgilduta buru-belarri, eta, dantza bidez, gozatzea dute helburu

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

Gozamenetik abiatutako hitzordua da Urnietan dantza-soka. Horrelaxe bizi du hasiera-hasieratik Asun Fernandez herriki-deak. Orain dela bi urte batu zen sokara, berriz, Paula Sanchez. Hamargarrenez irtengo dira aurten urriaren 2an, igandearekin, tradizio kutsu handiko ikuskizunari aire berritzailea emateko, eta festa-giroari modu ezin hobean.

**Plazara aterako zarete datorren igandean, dantza-soka hamargarrenez dantzatzeraz. Zenbaki biribila... Nola bizi duzue?**

**Asun Fernandez:** Oso pozik nago, herrian dantzari lotuta egiten ditugun ekitaldi guztien antzera, izan ere, oso gustuko dut dantzatzea. Gainera, lan handia egin dugu herriari begira, eta giro ederra sortzen da Urnietan, edozein dela arrazoia ere, dantza egitera ateratzen garenean.

**Paula Sanchez:** Hamargarrenez egiten den ekintza bat da eta, herrian, pozez hartzen da. Belaunaldiz belaunaldi igaro den eguna da; esperientzia luzeagoa duten horiek bezain gustura hartzen dugu parte taldean sartu garen gazte guztiek. Betiko doinuez gain, ospakizunari keinu berezi bat egite aldera, Urnietako musika txertatu dugu, Txanbolin Txistulari bandari eskerrak emateko eta beren lana balioan jartzeko, egiten dutenagatik: Koda Marizulo, Urnietako Ereserkia eta Urnieta 400.

**A.F.:** 2009. urtean hasi ginen honekin, dantza eskolei ekin genien momentu bertsuan, gutxi gorabehera. Herritar pila bat elkartu ziren lehen irail horretan. Garai hartan, indar handia zuten Urnietan herri ekimenek, eta bultzada horretaz baliatu ginen gu: gure betiko jarduera,

dantza, kalera atera genuen. Pozik bizi dut hamargarrena: lehen urteak errazagoak izan ziren antolakuntzari dagokionez, baina, urtez urte, ahalegin handiagoa eskatzen digu, jendeak oraindik ez duelako lur hartu uda girotik irailean.

**Kutsu berezia du ekitaldiak, jaieri amaiera ematen baitio. San Juan plaza beteta egon ohi da beti.**

**A.F.:** Urduritasunez hartzen dut, bai, jende asko hurbiltzen delako. Aspaldiko dantza da eta oso garrantzitsua iruditzen zait ohitura berreskuratu izana.

**Zertan datza dantza-soka?**

**P.S.:** Tradizioari estuki lotutako dantzak dira, baina oso errazak ikasteko. Alegia, ez da beharrezkoa euskal dantzak ezagutzea gurera batzeko. Herri guztiari irekitako proposamena da, ez soilik dantzan aritzen diren horientzat. Ez da perfekzioa bilatzen, gozatzea baiziki.

**Zergatik dantza-soka, eta ez soka-dantza?**

**P.S.:** Urnietari ekarpen handiak egin zizkion Maria Arizmendik horrelaxe deitzen zion, dantza-soka, Joxe Mari Zalduak egin dako elkarrizketa batean eta beste zenbait audio-artxibotan. Bada, guk formula hori berreskuratu genuen. Koreografia batzuen lotura da: soka bat osatzen da, aureskulariarekin nahiz atzeskulariarekin. Aire berritzailea txertatu diogu, gurera moldatu: tradizionalki, genero rola oso banatuta izan dituen dantza da, eta guk apurte egiten dugu horrekin: esate baterako, emakumezkoak izango dira aureskularia zein atzeskularia. Hori garrantzitsua da, emakumeoi, oro har, ahalegin handiagoa eskatzen digulako garrantzia duten jendaurreko rola hartzea, lotsa medio. Bestalde, ikusleak

**CERAMICAS NOGALES S.L.**  
**URNIETA**

- Sukaldeko altzariak
- Aluminio aroztegia
- Egur aroztegia
- Elektrizitatea
- Igeltsua
- Hargintza
- Iturgintza
- Pintura

Errekalde, 10. Urnieta  
Tel./Faxa: 943 009 284. Tel.: 943 550 624  
ceramicasnogales@ceramicasnogales.com

# MUAZPI

## Harategia

- Bertako haragia
- Jaki prestatuak
- Delikatessen
- Ardotegia

**Gora Urnieta!**

Errekalde, 14. Urnieta  
943 008 304 / 665 73 78 71  
muazpi@gmail.com



2009ko urriaren 4an, igandearekin, dantza-soka berreskuratu zuen Egape dantza taldeak. Saioa amaituta, partaideek taldeko argazkia atera zuten. Ikusten denez, herritar ugariak parte hartu zuen lehen edizio hartan. AIURRI

plazara ateratzen ditugu, nahiz eta ez dantzatu, gurekin batera soka osatu eta egituratu dezaten. **Hitzordu parte hartzailea da, hortaz.**

**P.S.:** Hori da gure lehen helburua, jakina. Herritarrek herritarrentzat egindako erakustaldia da dantza-soka.

**A.F.:** Hori da. Nire ustez, jendeak ez du parte hartzen Egape Dantza Taldearen zerbait dela pentsatzen duelako. Egape Dantza Taldeak antolatzen du ekitaldia, baina, bai, edonori zuzenduta dago.

**Emanaldia baino zenbat denbora lehenago ekiten diezue entseguei?**

**P.S.:** Pare bat aste lehenago, taldea apur bat antolatu eta dantzak ezagutzeko. Edu Muruamendi-razek, gainera, taldeko premiei eta gaitasunei begira osatzen

**"HERRITAR PILOA ELKARTU ZEN 2009AN, BERRESKURATU OSTEKO LEHEN EDIZIO HARTAN"**

du emanaldia. Hau da, ez da sekula inor kanpo gelditu.

**Betiko aurpegiez gain, jende berria sartzen da urtero.**

**A.F.:** Beti dago ondo jende berriak parte hartzea, baita gazteek ere.

**P.S.:** Aire freskoa ematen diogu taldeari. Guztiek egiten dugu

**"HERRITARREK HERRITARRENTZAT EGINDAKO ERAKUSTALDIA DA DANTZA-SOKA"**

batera ikuskizuna, desberdinkeriarik gabe. Urnietan behintzat hainbat belaunaldik osatzen dugu soka.

**A.F.:** Gainera zorionekoak gu, dugun irakasleagatik, Edu, eta Txanbolin Txistulari bandagatik. Ez gara jabetzen, sarri,

**"EGAPEK ANTOLATZEN DU DANTZA-SOKA, BAINA EDONORI ZABALDUTAKO EKITALDIA DA"**

herrian dugun ondare kulturaz; beraz, hori ere plazaratu nahi dugu.

**Geldialdiaren ondoren, igandean, kalera irtengo zarete berrito. Ur-duri?**

**A.F.:** Baina ilusioarekin!

**P.S.:** Niretzat oso berezia da, amarekin egiten dudalako dantza.

**A.F.:** Gainera, ikusleen artetik herritarrak ateratzen ditugu jendaurrera; ondorioz, ikusmirra sortzen du, eta, oso hunkigarria da.

Animatu dadila jendea!



*Festa zoriontsuak opa dizkizuegu!*

**iturbe**

SUKALDE ETA ETXEKO ALTZARIAK  
ETXE OSOKO ERREFORMA

[www.mueblesiturbe.com](http://www.mueblesiturbe.com)

Iganegi Industrialedea 70, 20130 URNIETA  
M. 688 632 491 | T. 943 552 750 | E. [info@mueblesiturbe.com](mailto:info@mueblesiturbe.com)



# SANMIELAK URNIETAN 2022

## ASTEAZKENA 28

**16:30** Urnieta selfie! Ginkana jolasa 11-16 urte birtartekoentzat, Zubitxo plazan.

**18:00** Udalak haur jaioberriei jaietako zapia jarriko die Kontzejupean. Egapek dantzatuko du agurra.

**18:30** Erraldoi eta buruhandien kalejira, Plazido Muxika Plazatik hasita. Bosko Anitz txarangarekin.

**19:30** Mielaren jaitsiera, elizako kanpandorretik Udaletxera. Txupinazoa Bosko Anitz Aisialdi Taldearen eskutik.

**20:00** Txosnen irekiera.

**20:00-21:30** Laiotz San Joan plazan. Euriarekin txosnagunean.

## OSTEGUNA 29

**09:30** Diana Txanbolin txistulari bandarekin.

**11:00** Meza Nagusia Mikel Goiaingeruaren elizan.

**12:30** Arantxa Kortajarena Begiristain eta Ana Jauregi Garmendiari omenaldia, Udal Batzar Aretoan.

Txanbolin Txistulari bandaren kontzertua, Egape Dantza Taldearekin batera. Euriarekin Saroben.

**14:00** Nagusien bazkaria Oianumen.

**17:00** Herri kirolak Probalekuan. Aizkolariak bikoteka: Julen Gabirondo eta Nerea Arruti. Hodei Ezpeleta eta Laiene Pikabea. Aizkolariak bakarka: Malen Barrenetxea. Harri-jasotzea: Beñat Telleria.

**18:00** Agirre taldearekin dantzaldia Berrasoetako eremuan.

**19:30** Puro Relajo San Joan plazan. Euriarekin Egape ikastolan.

**20:30** Patata-tortila lehiaketa txosnagunean.

**23:00-00:30** "Con taras y a lo loco", antzerkia Nerea Garmendiarekin. Euriarekin Saroben.

**23:30-00:30** Kontzertua txosnatan: The Roristak, Kyxo.

## OSTIRALA 30

**10:00** Diana Txanbolinekin.

**10:30** Alkate Txikien izendapena: Afrika Iborra Lopez eta Ruben Agudo Felipe. Belauntxingoa.



Miela kanpandorretik jaisten ikusiko dugu berriro. AIURRI

**11:30-13:00 eta 16:00-18:00** Plisti Plasta ekojolasak, Egape ikastolako frontoi txikian. Puzgarriak eta jokoak Egapean.

**17:00** Herriko buruhandi eta erraldioen kalejira San Joan Plazatik, dultzaineroekin. Haurren Kontzejupeko esku-pilota txapelketaren finalak. Mahai jokoak, Berrasoetan.

**18:30** Esku pilota jaialdia. Eneritz Arrieta, Naroa Agirre / Oihana Orbegoza, Iranzu Echeveste eta Paul Ojuel, Aitor Alduntzin / Iker Arretxe, Imanol Odriozola.

**19:00** Xaibor diskofesta plazan.

**21:00-23:00** Afaria txosnagunean.

**22:00-03:00** Urnieta Gau elektronikoa, Egape Ikastolan. Dj Katxorro, Dj Maik B2B Achucarro, Dj Sergi, Nuria Jump, Julius MC.

**23:00-03:00** Kontzertuak txosnagunean: Lukiek, Liher, Ezpalak.

**23:00-01:30** Diskofesta: Oihan Vegarekin San Joan plazan.

## LARUNBATA 1

**10:00** Kalejira Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria, Astigarraga eta Hernaniko txistulariekin.

**11:00-13:00** 2-12 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzako bizikleta jardunaldia. Egape Ikastolan, Andoaingo Txirindulari Eskolaren eskutik.

**11:00-11:30** San Sebastian Circuit Spirit auto klasikoaren desfilea Idiazabal kalean.

**11:30-12:30** Altxorren bila jokoak plazan, 8-15 urtekoentzat.

**12:00-14:00** Kuadrilen kalejiraren Pasai Txarangarekin San Joan plazatik.

**14:00** Paella jatea, Berdeak taldeak eta Etxeberri plazako auzo elkarteko kideek antolatuta. San Joan Plazan. Euriarekin Egape Ikastolan.

**14:30** Poxta Zaharrek antolatuta, bazkari herrikoia txosnagunean.

**14:30** Emakume kuadrillaren bazkaria Zaldundegi jatetxean.

**17:00** Plazan kale antzerkia: 'Oh Pera' Zirko Txosko taldearekin. Euriarekin Egape ikastolan. Bingoa Berrasoetako eremuan, Denda Berrik antolaturik.

**17:00-20:00** Kuadrilen kalejiraren irteera plazatik, Pasai Txarangarekin.

**17:00-20:30** Elektrotxaranga txosnetatik abiatuta.

**18:00-21:00** Urdanborren irteera Plazido Muxika Plazatik Maximo Yurramendin gora.

**HOTEL  
HK10  
HOTELA**

Erreserbak:  
943 33 73 57 edo  
info@hotelk10.com

## Terraza parrillarekin

### Urriaren 1a eta 2a parrillaz gozaten azken asteburua

- Ostirala: 20:00-22:30
- Larunbata: 13:00-15:30 / 20:00-22:30
- Igandea: 13:00-15:30

GORA URNIETA!  
GORA SANMIELAK!



Lagunartean elkartzeko aukera ugari izango da jaietan. AIURRI

Urdenbor herriko danborradak saioa eskainiko du, larunbatean. AIURRI

**18:30** Elizan Urdenbor danborradaren saioa.

**19:00-21:00** Plazan London Orkestra. Euriarekin, Egape Ikastolan.

**23:00-03:00** Kontzertuak txosnagunean: Herenegun, Xiberoots, DJ Alabarruna.

**24:00-01:00** Urdenborren irteera Idiazabal kaletik.

**24:00-03:00** Dantzaldia plazan, London Orkestrarekin.

**IGANDEA 2**

**06:30** Eguzki txaranga txosnetatik, Poxta Zaharrek antolatuta.

**09:30** Probintzia mailako bolo txapelketa, Bolatokian.

**10:00** Diana Txanbolinekin.

**12:00** Meza Nagusia elizan. Aperitiboa Berrasoetako eremuan. Batzoki elkarteak antolatuta, Munduko ardoen dastaketa Kontzejupean. Magale Ikastetxeko haur danborrada.

**14:00-18:30** Kantu bazkaria txosnagunean. Imanol Kamio eta Aitor Atxega musikariak eta Aitor Mendiluze eta Nerea Elustondo bertsolariak.

**17:00** Agirre taldearen dantzaldia, Berrasoetako eremuan.

**17:30** Txekor jate solidarioa eta sagardo dastaketa San Joan plazan. Euriarekin Egape Ikastolan.

**18:30-20:30** Willy Etxeberria memoriale, zesta punta: Erika Mugartegui, Unax Balda / Ekhi Lete, Frida Watkins. Martin Mujika Erremonte

jaialdia pilotalekuan: Ansa II, Juanenea / Goikoetxea V, Loitegi.

**19:00** Kontzertu akustikoa txosnagunean.

**18:30-20:30** Gozategi plazan.

**20:30** Dantza-Soka plazan.

**21:00** Mielari agurra. Zezen suzkoak. Azken traka.

**ONDO PASA JAIETAN**

**EZ** beti da **EZ**

Jaietan gozatu, errespetuz

Orain urteetan buruen, ardurak!

**2022ko SANMIELAK**



# "Talde irekia da, ondo pasatzeko eta gustuko musika jotzeko"

**ENEKO BUSTILLO ETA DIEGO CARBALLEDA** THE ROTISTAK TALDEKO KIDEAK Kyxo Urnietako musika taldearekin batera, kontzertua eskainiko dute Urnietako jaietan. Ironiaz eta umore onez erantzun dituzte galderak

**Mikel Arberas** URNIETA

**Zer da The Rotistak?**

**Eneko Bustillo:** 2019an Urnietan Gazte Asanblada bat zegoen. Bertako sinergiak eta gogoa ikusita, Sanmieletan kontzertu bat eskaini genuen Mikaelaeneako kanpoaldean festen aldarrikapena egiteko. Esperimentua ondo irten zen eta herritarak gustura egoteaz gain parte hartzera animatu zirela ikusi genuen. Horiek horrela, aukera polita sortu zen talde aske eta herriko bat sortzeko. Egun, auzoko zein herriko ekitaldietan parte hartzeko prest gauden galdetzen digute, eta gu, pozik.

**Diego Carballeda:** Azken finean, ondo pasatzeko aitzakia bat da. Nahi dugun musika jotzeko aukera dugu inongo presiorik eduki gabe.

**Zenbak kide zarete taldean?**

**D.C.:** Talde irekia denez, ez dago taldekide kopuru zehatz bat, baina, zerbait esatearren, WhatsApp taldean 20tik gora kide gaude. Entsegetan, berriz, askoz ere gutxiago egoten gara.

Gainera, kontzertuan bertan norbait taula gainera igotzera animatuz gero ongi etorria izango da.

**Musika mota asko jotzen al dituzue?**

**E.B.:** Hemendik At, Huntza, Eskorbuto, Metallica eta Des-Kontrol bezalako taldeen estiloko musika jotzen dugu. Baita 80. hamarkadako Hit Techno Euro Dance ere –kar, kar, kar–.

**D.C.:** Musika mota nagusia rocka dela esango nuke, baina hesiak gainditzen saiatzen ari gara.

**Nolakoak izaten dira taldeko entseguak?**

**E.B.:** Ez gara taldekide asko agertzen entsegetara, esan bezala.

Badakizu, lana, ikasketak eta eginbeharrak... Batzuetan nahiko kaotikoa izaten da, baina ondo moldatzen gara.

**D.C.:** Ausazkoak izaten dira. Hasieran ez ziren horrenbeste entsegu egiten. Lehen kontzertuetarako bakarra egin eta nahikoa izaten zen. Egun, berriz, apur bat perfektionista nahizez gero, entsegu gehiago egiten hasi gara. Izan ere, abesti berriak jotzen hastea lanketa handiagoa eskatzen dute. Aurreko kontzerturako lau entsegu egin genituen eta Sanmieletoako beste bi.

**Herriko talde finkoa bilakatzeko bidean zaudetela dirudi...**

**D.C.:** Agian profesionalizatzen hasi beharko dugu, ez dakit...

**E.B.:** Ez dakit profesionalizatzeke gai izango garen, baina gure defentsan, talde gisa bi jabetzen berri eman nahiko ge-



Carballeda eta Bustillo. AIURRI

nuke: 12 euroko pendrive bat eta Steven Xauxar tabernako zerbitzari ohiak emandako bateria. Konforme gaude dugunarekin, oraingo.

**Zein da zuen aurreikuspen Sanmielei begira?**

**E.B.:** Lehenik eta behin, esker ona adierazi nahi diogu Poxta Zaharri emandako aukeragatik eta egiten ari den lanagatik. Aurreikuspenari dagokionez, gure kontzertu jendetsuena iza-

tea espero dugu. Pandemia osteko Sanmielak bereziak izango direlako eta jendeak gogo handia duelako.

**D.C.:** Jendea gogotsu egotea espero dugu. Testuinguru horretan, agian, kontzertua are erakargarriagoa izango da. Horrez gain, herritarrei parte hartzeko, kantak gomendatzeko eta, nahi izanez gero, taula gainera igotzeko gonbitea bidaltzen diegu.

# Kronika

## ERREMONTA JAIALDIA

URRIAK 7 - 17:00  
GALARRETA JAI-ALAI

**SARRERA 12€**  
PINTXOA + EDARIA  
\*10 URTETIK BEHERAKOK DOAN

**SORTZAILEEN POSTUAK**

**ZUZENEKO MUSIKA**

**ERREMONTA TXAPELKETA:**

1. PARTIDUA (20 TANTU)

**HERNANI** vs **ASTIGARRAGA**  
LOTEZ - BARRIENTZA IV / GUNGOTIA - LARRANAGA

2. PARTIDUA (20 TANTU)

**GOIZUETA-ARANO** vs **EREÑOTZU**  
URRILA - BEZETIA / ANA II - MARTINEA

3. PARTIDUA FINALA (20 TANTU)

**22 SAGARDOTEGITAKO SAGARDOA:**

ANARREGI · ALBERRO · ALTZUETA · ARTOLA ·  
ELORRABI ELUTKETA · EULA · GARTZIATEGI ·  
GONKO-LASTOLA · BURUTZETA · IPARRAGINRE ·  
ITXASBURU · LAURE-GAIN · LIZEAGA · DIALUME ·  
ZAR · OLAIZOLA OTSUA-ENEA · OYARRIDE ·  
PETRITEGI · RUFINO · ZAPIAIN · ZELRIA

**SALMENTA-GUNEAK:**

ERRETA  
GALARRETA (GALARRETA BERTAN) (GALARRETA)  
GALARRETA (GALARRETA BERTAN)  
GALARRETA (GALARRETA BERTAN)



# "Musika elektronikoa ere kultura da"

**MIKEL GARCIA, SERGIO AMADO** URNIETAKO GAU ELEKTRONIKOAREN ANTOLATZAILEAK  
Mikel Garcia urnietarrak eta Sergio Amado andoaindarrak Sanmieletako lehen Gau Elektronikoa antolatu dute. Maila handiko DJak elkartuko dira, ostiralean

**Mikel Arberas** URNIETA

**Nola otu zitzaizuen gau elektronikoa antolatzea Urnietan?**

**Mikel Garcia:** Betidanik eduki dut elektronika Sanmieletan txertatzeko nahia. Gainera, gaztetatik, musika elektronikoarekin harreman duta egon naiz, beraz, nire herrian oso gogoko dudana musika jaialdi bat egitea izugarria da, amets bat. Hori gutxi balitz, fama nazionala duen eta ezagutzen ditudan DJak datoz. Esan beharra dago, hau guztia antolatzeko jai batzordearen eta Udalaren babesa ezinbestekoa izan dela.

**Sergio Amado:** DJ gisa ia duela hogeit hamar urte hasi nintzen eta zenbait jai antolatu izan ditut. Horregatik, Mikelek ideia hau aipatu zidanean, laguntzeko prest nengoela adierazi nion.

**Zer da musika elektronikoa zuentzat?**

**M.G.:** Niretzako bizi-estiloa da. Ostiralean Urnietako gazte batekin egingo dut saioa eta Techno musika landuko dugu, bizia eta indartsua. Horrek guztiak

**"NIRE HERRIAN OSO GOGOKO DUDAN MUSIKA JAIALDIA EGITEA IZUGARRIA DA"**



Garcia eta Amado, aurtengo jaialdiaren afitxarekin. AIURRI

egunerokotasunean aurrera egiteko indarra eta bizia ematen dit; entzuleak nirekin batera gozatzeko gogo handia sorrarazten dit.

Gauza bat esango dizut, nire aitak gorrotu du musika hau, baina, neurri batean, zentzua bilatzen dio; hau da, bere seme-ari izugarri gustatzen zaio, bizi egiten du. Sarritan esan izan dit: "Musika nahasketak egiten hasten zarenean, aldartea aldatzen zaizu".

**S.A.:** Kultura da, beste edozein musika mota bezalaxe. Egia da ere, oso zaila dela musika hau entzun ez duen norbait bilatzea, gogoko musika izan edo ez. Galdera zaila da; musika elektronikoa sekula entzun ez duen norbaiti zer den azaltzea oso konplexua da. Nire amari ere ez zaio batera gustatzen musika mota hau, baina egiten dudana gozatzeko ikustea poztu egiten du.

**Nola ikasi zenuten musika elektronikoa egiten?**

**S.A.:** Gaztea nintzenean Hernaniko Young Play diskotekara joaten ginen Mikel eta biok. Gara hartan, jakin-min handia sortu zitzaidan musika elektronikoren gainean; harrigarria egiten zitzaidan biniloekin nahasketak egiten ikustea eta gehiago jakitera bultzatu ninduen. Gaur egun, DJak ordenagailuarekin eta beste hainbat tresnekin hasten dira, baina, duela urte batzuk, manualki egiten zen dena. Horiek horrela, gutxinaka nire musika

**"SEI DJ ARITUKO GARA, HORIETATIK HIRU URNIETARRAK, JENDETZA GERTURATUKO DA"**

egiteko tresnak erosten eta probatzen hasi nintzen, gaur arte. Esango nuke, egun, ibilbide nahiko luzea duen DJa naizela.

**Musika mota hau gazteen artean geroz eta entzunagoa al da?**

**M.G.:** Asko entzuten da, batez ere, techno. Duela urte batzuk musika mota hau modu ezkor eta txar batean etiketatuta zegoen. Azken urteetan, berriz, musika hedatua eta popularra bilakatu da. Adibide garbia, udan egin zen Monegros jaialdia izan liteke; 55.000 pertsona bertaratu ziren techno musika oinarri duen jaialdira. Hori hamar urte atzera pentsaezina zen.

**Zein aurreikuspen duzue Urnietako gau elektronikoren gainean?**

**M.G.:** Jendetza gerturatuko da. Herritarrak gogo bizia dute ostiralerako; guztiak harrিতuta geratu dira antolatu dugun jaialdiarekin. Kanpotik ere elektronika zaleak gerturatuko direla pentsatzen dut.

**Zenbait DJek parte hartuko dute, ezta?**

**M.G.:** Sei izango gara, horietatik hiru urnietarrak. Horrez gain, Sergio Astigarragan bizi den andoaindarrak, Nuria bizkaitarrak, Julius zestoarrak girotuko dute herria.

**S.A.:** Bertako DJak ekartzeko apustua egin dugu. Hasieratik, Julius ekartzeko nahia eduki dugu, nazioarte ikuspegiko DJa delako eta erakarpen indar handia duelako. Lehen jaialdia izateko, maila handiko musikariak ekarri ditugula pentsatzen dugu.

**"LEHEN JAIALDIA IZATEKO, MAILA HANDIKO MUSIKARIAK EKARRIKO DITUGU URNIETARA"**



SANMIEL JAI ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUEGU!

 **magale**  
IKASTETXEA

 **salestarrak**  
URNIETA





## Erredakzioa URNIETA

Oianumen bapo afaldu ondoren, Amaia Agirrek egin zituen aurkezpen lanak. Honako hauexek izan ziren lehen bi bertsoak, agurrekoak. Lujanbio izan zen lehena: "Gabon denori eta ongi etorri / gure diosal ta guzti / Urnietak ez du ez zaletasun / hain makala erakutsi. / Ederki asko afaldu degu / eta gainera ez gutxi, / orain saio bat egingo degu / ta loaleari eutsi". Arzallusek, jarraian: "Gabon neuk ere begia jarritz / eskubi ta ezkerretan / altu edo baju ez dakit nola / entzuten dan Urnietan / lehen ez nekin ta deskubritu / det nik hemen eta gaur bertan / ze mundu dagon Urnietako subtearreno hauetan". Adin guztietako bertsozaleak elkartu ziren Oianumen, gehien-gehienak urnietarrak baina baita inguruko herrietakoak. Nor da gaztea? Zer da gazte izatea? Arzallusek askatu zuen korapiloa: "Ba igual ni nonbait sartu ninteko / aurrean dagon ileran, baina pentsatzen nengon Maialen / gaur normahi dabil primeran / ze inporta dun jubilaua izan / nahiz kalimotxo edan, / gaztea ez da noiz sortu zinen / baizik non ibiltzen zeran".

Sanmielak ate joka daude, eta, aurreko ostiralean, Oianumen bizitakoa gogoangarria izan zen. Bertsozaleek gozatu ederra hartu zuten. Jaiei hasiera emateko modu bikaina izan zen. Ostiralekoa eta gero, jaiak egongo al dira bertso-afariaren mailan? Gutxi-asko, horixe zen Lujanbio bertso bidez botatako hausnarketa: "Gaurkoa dute ostiraleko jai programan egun extra / Ze Sanmigelak ostegunez edo hasi behar dute, ezta? / Hau prebioa baldin badute, ze izango ote da festa?".



Amaia Agirre, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus, Oianumeko bertso afarian. AIURRI

# Afaria eta bertsoak, biak mundialak

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean aulkia eduki ohi duten bi bertsolarien kantuz gozatzeko aukera izan zuten Urnietara hurbildu ziren bertsozaleek, sagardotegiko menua dastatu zuten bitartean. Sanmielak ate joka izanik, festarako gogoia antzematen da

Pandemia ostean noraezean dabilzanen pare agertu zen Amets Arzallus, bere erantzunean: "Hau prebioa baldin badute festan erregin-errege / baina pandemia zahar horretatik, ez denbora eta ez lege / zuk esan dezu urri edo irail ta nahastu naiz alafede / azken bi urtetan ez dakit nik ze urtarotan gauden".

Uda amaitzen ari da, eta Urnietakoak izan ohi dira udako azken festak. Abantailak beste-rik ez zizkion topatu Hernaniko

Sanjuanak ondotxo ezagutzen dituen Maialen Lujanbio: "Festak ospatzen ditugu, beraz, denak aurrekoz atzeko / Sanjuanak dira lendabiziko gosetu haien trantzeko. / Gero udara Euskal Herrian herriz herri pasatzeko, / ta Urnieta ez da ba txarra uda on bat bukatzeko".

Aurten, bost txosna izango direla-eta, jolasean jarri zituen Agirrek bi bertsolariak. Txosna jarriko duten bost mugimenduetatik lauren izenak asmatuz gero,

Poxta Zaharren kontura "barra libre" izango dutela bota zien.

**M.L.:** Dios te salve ongiatorri ohiturak dion antzean, kopla pare bat botako degu orain txosna bakoitzean.

**A.A.:** Bostetatik bi asmatze hori oso erraz dago nonahi, baldin konpondu baldin badira GKS eta Ernai.

**M.L.:** GKS ez, ez dauka txosnik, ni horrek ez nau kezkatzen. Izatekotan ere aparte, barrun ez zaie gustatzen.

**A.A.:** La Salle eta Salesianoak Urnietak daukan fama, ziur txosna bat izango dala Hermanas de Mariantzat.

**M.L.:** Eta betizu zaleek ere txosnaz badakite pixkat. Eta beraien ondoan omen da Bilgune Feminista.

**A.A.:** Eta hotela gau ta gosari, ta restaurante luxuan. Hainbeste gauza dauzkan enpresak Txosna re jarriko zuan.

**M.L.:** Eta Poxta Zahar elkarteare noski faltik gabe bate, lehenago Xauxar existitzen zan ta orain txosna daukate.

**A.A.:** Ta Xoxokako komisiok txosna aurrekoz atzeko. Udalak ematen ez diona gero festak montatzeko.

**M.L.:** Ta Urnietan hain xebreak, ta hain planta bitxikoak. Nor daki txosna jarriko duten hemen katekesikoak.

**A.A.:** Ta hernaniarrek beti ikusten dute periferi bezala.

Seguru nago hernaniarrek txosna jarriko zutela.

**M.L.:** Ta eskubaloiak igual ere bai, ez zan besterik falta. Alkatea re garai batean han jokautakoa da ta.

**A.A.:** Ta Oianume sagardotegia bere zabaleran prestu, komedore ta subterraneo txosnaren beharrik ez du.

**M.L.:** EAJK eta EGik ere bai txosna bat dauka jarrita. Egibarrek e turnoa omen du Andoaindik etorrira.

**A.A.:** Baina hau ez da soilik Maialen, EGiko gazteen zona.

EAkoek ere jartzen dituzte hemen hamaika bat txosna.

**M.L.:** Eta horrekin plaza guztia geratuko da beteta.

ITVkoek ez dute jartzen nahiko kobratzen dute ta.



## Hamargarren denboraldia abiatu da

- "Aiurri" taldean astero zozketa egingo dugu: KMO produktuez betetako otarra.







Badira urtero kale egiten ez duten urnietarrak. AIURRI



Afaria eta gero, Oianumeko diskofestan dantzan aritzeko aukera izan zuten gazteek. AIURRI



Sanmielei begira ipintzen ditu Urnietako gazteak Oianumeko bertso afariak. AIURRI

## Sanmielen aurreko bertso-afaria



Agirre, Lujanbio eta Arzallus. AIURRI

**Amaia Agirrerren esanetara** Urnietarrek goi mailako saioaz gozatzeko aukera izan zuten. Eta horretan zerikusirik handia izan zuen Amaia Agirre gai-jartzaileak. Dena esatera, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus gogotsu aritu ziren kantuan.



Urnietarrak, hernaniarrak eta andoaindarrak hurbildu ziren. AIURRI

**Berrehun lagun Oianumen** Jendetza elkartu zen sagardotegian, baina bada nabarmendu beharrekoa: jendea jende, isiltasuna nagusi izan zen saioak iraun bitartean, bertsolarien mesederako. Bertan ziren askok menu oparoa zela adierazi zuten.



Urnietako bertsozaleak, Oianumen. AIURRI

**Bertsozaleen gaua** Gazteetatik hasi, eta adinekoetara bitarte, errimez gozatzeko aukera izan zuten Oianumera hurbildu zirenek. Askotariko gaiak jorratu zituzten, eta maiz ikusleen irri eta algarak sorraz zituzten.

## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



## KOMUNITATEA

HERRI PLATAFORMA ANDOAIN

# Andoaindarrei eta dagozkien administrariei

Joan den abuztuan sortu zen bizilagunen plataforma, N1 bide azpiegiturarentzat baliozko eta iraunkorra izan litekeen konponbide bat bilatzeko eta bultzatzeko Andoaindik pasatzerakoan, baita ere A15-arekin nola lotu herriaren ipar eta hego demarkazioetan. Konponbideak Andoaingo Hirigintza Plangintza Orokorra errespetatu beharko luke.

Bizilagunen Plataformak ondorengo gogoetak jakitera eman nahi ditu:

1. Ez dakigu nola kalifikatu Gipuzkoako Batzar Nagusietako Bide Azpiegituren Batzordean Oiarbide Andereak CII proiektuaren trazaketari buruz, eta bere inguruan

egon diren baldintza eta zenbait gertaeren azalpenak ematekoan: egiak ez direnak, erdizkako egiak, errealak ez diren datu eta gertakariak bezala kalifikatu behar. Horri aurre egiteko kaltetuon plataformak, ahal bezain azkar azaltze bat urgentzia egiteko behar diren gestioak egitea eskatuko dugu.

2. Andoaingo Udalari eta bere ordezkari gorena den Maider Lainez alkateari eskatu helarazi dezala Oiarbide anderearen mesprexuzko hitzek andoaindar askori sortu dien ezinegona. Era berean, irailaren 12an Udalbatzak onartutako erabakia helarazi eta CII trazaketari era argian emandako



Plataformak banderolak eskuratzeko deialdia luzatu du. AIURRI

ezezkoa, irtenbide iraunkorrak, ingurugiroarekin eta pertsonen interesekin eta,

batez ere, Andoaingo Hirigintza Plangintza Orokorrarekin bat datoztenak aurkitzea

bultzatzen du, Andoaingo herritarrenganako eta Udalarenganako gutxieneko errespetua exijitu.

3. Argi eta garbi adierazi nahi dugu inork ez gaituela lokatzetan edo zikinkeriatan aurkituko, nahiz eta horretarako interes handia erakutsi zenbaitek. Inork ez gaitu istilutan aurkituko, bai ordea adostasunean. Andoaindar guztien eskubide zibilak defendatu nahi dituen edonork aurkituko gaitu bidean, N1 bide azpiegiturarentzat irtenbide egoki eta iraunkorra aurkitzeko beharrean, beti ere Andoaingo Hirigintza Plangintza Orokorrarean biltzen diren helburuak errespetatuz.

## AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)

**Aiurri eskuragarri:**  
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.

**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

**Maketzaileak:** Maddi Trubuelo.

**Kudeaketa, harpidetzak:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

**Publizitatea:** Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

**Banatzailak:** Rocío Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea.

**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

**Lege Gordailua:** SS-1078/04.

**ISSN:** 1698-4870.

**Tirada:** 4.000 ale.

**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



Urnietako udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Urnietako  
udala



Elektropottotte elektrotxaranga. TXINTXARRI

# Euskara sustatzeko ospakizuna, ostiralean

Azaroaren 18an hasi eta abenduaren 2ra bitarte, Euskaraldian murgilduko da Euskal Herria. Izen-ematea aste honetan abiatu da, eta Andoaingo Euskaraldia Batzordeak aurkezpen-festa antolatu du. 19:00tan abiatuko da, Bastero aurreko Plaza Morean

## Jon Ander Ubeda ANDOAIN

"2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra ilusioz, arduraz, gogoz eta emozioz ekingo diogu ariketari. Kaleak beteko ditugu berriz ere, euskaraz hitz egitea inoiz baino errazago izan dadin. Belarriprestok eta ahobiziok aukera berriak izan ditzagun lan egingo dugu elkarrekin, auzo auzo, herriz herri eta arigunez arigunez. Hitzek ekiteko garaia heldu da". Adierazpen hori aurki daiteke Euskaraldiaren webgunean sartuz gero, eta, Andoainera etorrira, bertako Euskaraldiaren batzordeak ere antzeko adierazpena egin zezakeen. Izan ere, azaroko ekitaldiren aurretik, Euskaraldiaren atariko ospakizuna antolatu baita ostiral honetarako. Musika eta dantza erritmo ezberdinen pean dantzan jarri nahi dute Andoain euskalduna, euskaldun zahar eta berrien topagune bilakatuta. Txalaparta doinuekin abiatuko da arratsalde musikatua, perkusio hotsekin eta elek-

trotxarangaren doinuekin osatuko dena. Eta, tartean, iluntzegaua borobiltzeko bokata-afaria. Andoaingo Euskaraldiaren batzordeak ekainean egin zuen lehen bilera irekia, batzordea osatze aldera. Ostiral honetan jendaurreko lehen ekitaldia antolatuko da, hurrengo hilabeteetan segida izango duena. Eguraldia oso txarra ez bada

hasierako egitasmoari eutsiko zaio. Plaza Morean eta Bekoplazan aurrikusita daude ekitaldiaren hasiera eta amaiera. Euriarekin, Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian egingo da ospakizun guztia. Maizorri, Mulambo eta Elektropottotte taldeek erritmoz beteko dute ekitaldia. Kalean eta euskaraz aritzeko ekitaldi aproposa da.



andoaINDARRA  
euskaraz

## Ospakizuna ostiral honetan




Maizorri txalaparta taldeak emango dio hasiera ekitaldiari. AIURRI

**Musika eskaintza zabala** Txalaparta, perkusioa, elektrotxaranga... Musikaren erritmoan antolatutako ospakizuna izango da. Eta, saio guztietan, gainera, Andoaingo musikariak aurkituko ditugu.



Bokata-afaria antolatu du Andoaingo Euskaraldia batzordeak. AIURRI

**Afaria, lagunartean** Koadrilan edo familian afartzeko aukera polita izango da, ostiral honetan. 5 euroko prezioan, ogitartekoak eskaini ditu antolaketa taldeak. Iluntze-gau polita izango da, euskararen bueltan pentsatuta.



Arropa postua jarriko dute ostiralean. AIURRI

**Arropa salgai, ostiralean bertan** Udan Kale Nagusiko Li dendan salgai izan da Euskaraldiko arropa. Jertseak, kamisetak, poltsak... Ostiralean bertan erosteko aukera izango da, Euskaraldiaren aurkezpen-festan.



Bukaerako ekitaldia polita izan zen, kirolari guztiak batera plaza erdian, sari banaketa dotorean. UZTARRIA

#### Andoni Urbistondo AZPEITIA

Julen Gabirondok aspaldi pasa zuen Olinpo horren atea, segako Euskal Herriko bost txapelketa jantzita, apustuak irabazita, eta Pentatloian aurkariak beldurtuta. Nerea Arrutik egindako balentria itzela da, Gabirondo beraren tamainan edo garrantzitsuagoa. Izan ere, Pentatloiko finalean parte hartzen duen lehen aukeran irabazi zuen txapela Lekun baserriko gazteak, eta nagusitasun handiarekin, gainera.

Txapelketa ikusgarria da Pentatloia, herri kiroleko lau diziplina eta korrika saioa batzen dituena. Erresistentzia handia eskatzen duen lehiaketa da, eta oso gogorra, ez baitu apenas atsedena hartzeko tarterik eskaintzen. Harri jasotzea, aurrena, giza proba gero, aizkora ondoren, txinga garraioa hurrena, eta korrika saio nekosoa bukatzeko. Arrutik 21 minutu pasatxotan osatu zuen lana, garaipena ospatzeko astiarekin bukaeran.

Antolatzaileek lan bikaina egin zuten, aurkezpenak AEBetako ikuskizun handien kutsua hartu baitzuten. Kirolariak izar handiak bailiran aurkeztu zituzten, banaka-banaka, musika abesti ezagunekin eta pelikuletako gezurrezko ke efektuekin. Zinemaldiko Itxiera Gala bukatu berritan zen Donostian, eta hango izarren pare egin zituzten atarikoak Azpeitiko zezen plazan.

# Bi urnietar herri kirolen Olinpoan

**HERRI KIROLAK** Urnieta Herri Kirolen Olinpoan sartu da bi kirolari handiren kemenari esker. Joan zen asteburuan Pentatloia finala jokatu zen eta Nerea Arruti gailendu zen, emakumezkoetan. Gizonezkoetan, berriz, Julen Gabirondo azpitxapeldun

#### Nerea Arruti, txapeldun

Mila lagun inguru elkartu ziren, soinuetsuenak Mallabiko koadrila handia, Gisasolatarrak animatzeko. Nerea Arrutiren aldeko pankarta ere erakutsi zuten bere jarraitzaileek. Arrutik urduri antzean ekin zion harri-jasotze lanei. Epaileak altxaldi bat baliogabetzat eman zion, eta Karmele Gisasolak eta Lucia Orbek aurretik bukatu zuten. Giza-proban ere komeriak izan zituen urnietarrak, irrist egin baitzuten sarri 250 kiloko harriari tiraka.

**KORRIKA EGIN ZUEN AZKEN ITZULIAN GARAIPENAZ GOZATU AHAL IZAN ZUEN NEREA ARRUTIK**

Zilipurdika ere ibili zen, tarteke, Nerea, harrizarrari neurria hartu ezinik.

Bi bizkaitarrek minutu erdi eskaseko alde txikiarekin ekin zioten aizkora lanari. Diziplina guztieta luzeena. Arrutik orduan eman zuen bere onena, eta eraginkortasun handiarekin, 45 ontzako lehen enborra erdibitxerako aurretik baitzen. Bigarrenean ere antzera jarraitu zuen, egurrean, eta Orbe eta Gisasola lehiakideak, aldiz, bete antzean. Minutu eta erdiko aldearekin ekin zion txinga jardunari, eta errenta zertxobait handitu. Korrika hasi zenerako bi minutuko aldea zeukan Karmele Gisasolarekiko, hiru itzuli pasa, eta Arrutik aise eutsi zion lidergoari. Azken itzulia Azpeitira bertaratu ziren zaleei eskerrak emateko baliatu zuen urnietarrak.

#### Gabirondo, txapeldunorde

Gizonen lehiaketa hasterako gaueko 23:00ak gertu ziren. Bi txanda egin zituzten. Bigarrenean abiatu zen Julen Gabirondo Mozotegi etxeko semea, alboan Andoni Iruretagoiena eta Xabier Zaldua zituela. Iruretagoiena aiarra zen favorito nagusia, irailaren 3ko finalerdian ikusitakoa gogoan, baina esperantza bazen urnietarren artean. Izan ere, Gabirondok handiak egin ditu azken urtetan, mutil indartsua da, atleta bikaina, eta ezin

**GABIRONDOK TXAPELA AHAZTU ETA AZKEN ITZULIETAN BIGARREN POSTUA ZIURTATU ZUEN**

hura bazterrean utzi, lehia bukatu arte.

Harri-jasotzean bi altxaldiko txandak egin zituen Gabirondok, Beñat Telleriak lagunduta. Iruretagoiena, aldiz, hirunaka ari zen, eta minutu erdi pasatxoko errenta kendu zion Urnietakoa-ri giza proba hasterako. Zaldua ere aurretik zuen, artean, Mozotegikoak. Aizkora saioari azken ekin zion Julenek, baino bigarren enborra bukatzerako (kanaerdiko hiru moztu behar zituzten) Zaldua atzetik zeukan. Ez horrela Izeta VI., Aiakoak aldeari eusten baitzion.

Gabirondoren zaleok itxaropentsu ginen, txinga saioan txapeldunari denbora apur bat jango ziolako, eta esperantza irabazi korrika saiorako. Izeta VI., baina, nagusi aritu zen. Txinga saioa txingak zoruan utzi gabe egin zituen bakarra izan zen, eta horrek erakusten du zergatik zen txapeldun izateko favorito nagusia. Korrikako zatian zaila da sailkapenean aldaketak egotea. Lehena doan kontrolpean izaten ditu aurkariak, eta jazarpenean datozenak ere ezin sobera arriskatu, pott ez egiteko.

Egoera horretan ikusi zuen bere burua Gabirondok. Bi itzuli eta erdiko abantaila zeukan Izeta VI.-k korrika saioa hasterakoan, eta Zaldua hirugarren sailkatua itzuli erdira zuen, 20-25 segundo baino ez. Saiatu zen Gabirondo estutzen, baina bete samar sumatu zitzaion harmailetatik. Zaldua bera ere egurrean hasi zen, txapelduna bera aurreratuz eta Gabirondo gero eta gertuago. Urnietarrek txapela ahaztu, eta bigarren postua babestu behar izan zuen azken itzulietan. Bitxia izan zen itzuliak zenbatzen ari zen lagunari kargu hartu ziola, itzuliren bat kontatu ez ziolako. Alegia, burua argi zuela bukatu zituela lanak. Mozotegikoak Izeta VI. txapeldunak baino 1.07 gehiago behar izan zuen bere lana bukatzeko, baina bien arteko distantzia erreala handixeagoa izan zen, Iruretagoienak lasai antzean egin baitzituen azken bi itzuliak, garaipena ospatzen.

Bukaerako ekitaldia polita izan zen, kirolari guztiak batera plaza erdian, sari banaketa dotorean. Eta jendea pozik, ikusle modura hurbildutako mila lagun pasa. Pentatloia geratzeko etorri delako.

## Andoaingo Udala, babesle

**MOTORRA** Babesletza-kontratua sinatu dute Andoaingo Udalak eta Beñat Fernandez "Pelontxu" motogidariak, denboraldi berriari ekonomikoki laguntzeko. Etxeberrieta plazan antolatu zuten prentsaurrekoan eskaini zituzten xehetasunak. Mainer Lainez alkateak, Petri Romero zinegotziak eta Fernandezen familiak zein lagunek parte hartu zuten ekitaldian.

Denboraldi honetan European Talent Cup txapelketa garrantzitsuan parte hartuko du eta Estoril, Xerez, Portimao edo Valentzia bezalako zirkuitoetara bidaiatu beharko du.



AIURRI



ANDOAINGO

## Lehen bizikleta festa Urnietan

**TXIRRINDULARITZA** Sanmielen baitan, Andoaingo Txirrindulari Eskolak Lehen bizikleta festa antolatu du Urnietan, larunbatean izango da, goizeko 11:30ean hasita. Izen-ematea 11:00tan hasiko da. Hitzordua Egape ikastolako jolastoki estalian izango dute hitzordua. Sariak denentzat izango dira. Udalak eta eskolak duten hitzarmenaren baitan antolatu dute kirol hitzordua.

## Jarduerak gazteentzat

**KIROLA** 2006-2010 artean jaiotakoei begirako bi ikastaro jarri ditu martxan Urnietako kiroldegia: Gazte Training eta Kardio Fit izenekoak. Urriaren 3an hasiko dira eta ekainaren 16an amaituko. Izen emateak Kiroldegian egingo dira ohiko ordutegian, eta horretarako azken eguna irailaren 30a izango da. Kirol jarduera gehiago dago aukeran, Urnietan.



UDALA



AIURRI



AIURRI

## Etxean ariko dira asteburuan, Touringen aurka

**FUTBOLA** Gizonezkoen Gorengo mailan lehen bi jardunaldiak igaro ondoren, 7. postuan sailkatuta dago Euskaldunako lehen taldea. Berdinketarekin abiatu zuten denboraldia, eta aurreko asteburuan 1-2

gailendu ziren Hondarribin. Asteburu honetan Touring taldearen aurka jokatuko dute hirugarren jardunaldia. Sailkapenean atzetik dute Ubitartera datorren aurkaria. Aurrealdean jarraitzeko aukera dute.

## Kontzejupeko finalak

**PILOTA** Sanmioletako eskupilotako finalak ostiral honetan jokatuko dira, arratsaldeko 17:00tan hasita. Benjamin mailan Beñat Mitxelena eta Iker Belaunzaran ariko dira. Alebin mailan, berriz, Xabier Agirre eta Mañel Segues, eta infantil mailan Ekhi Larra eta Igor Belaunzaran. Paletan finalurrekoetan ariko dira Unai Legarreta-Jon Aroztegi eta Xabi Ansa-Julen Loidi.



## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## ASTEAZKENA 28

**URNIETA Sanmielak**

Egitarau osoa astekarian bertan, 4-5 orrialdeetan.

19:30 Txupinazoa plazan.

**ANDOAIN Erakusketa**

Euskal Herriko soinu-tresnen erakusketa, Maizorriren eskutik.

Azken eguna: Urriak 15.

Bastero, erakusketa gela.

## OSTIRALA 30

**ANDOAIN Ospakizuna**

Euskaraldiaren ospakizuna, kalez kale. Bokata-afarirako txartelak salgai daude.

19:00 Maizorriko txalapartariak.

19:30 Mulambo perkusio taldea.

20:15 Bokata afaria.

21:00 Elektropottotte.

22:00 Jaiaren amaiera.

**ANDOAIN Txalaparta**

Hernaniko Bihotx eta Tarragonako Txek txalaparta taldeak zuzenean ariko dira, Maizorriren eskutik.

20:30 Bastero.

## ASTELEHENA 3

**URNIETA Xoxokako jaiak**

Xoxokako jaien hasiera.

12:00 Hasiera.

12:30 Herri Kirolak.

14:00 Bazkari herrikoa Adarra

jatetxean Amets Arzallus eta

Andoni Egaña bertsolariekin.

21:00 Afaria Xoxokako eskolan.

## ASTEARTEA 4

**URNIETA Xoxokako jaiak**

Xoxokako jaien jarraipena.

18:00 Zaldi dema.

20:30 Zahagi-ardoa eskolan.

22:30 Gau sorpresa.

**ANDOAIN Parketarrak**

Haurrak euskaraz aritzeko ekimena.

17:15-18:15 3-5 urtekoentzat

18:15-19:15 6-9 urtekoentzat.

Goikoplaza.

## ASTEAZKENA 5

**ANDOAIN Parketarrak**

Haur ekimena.

17:15-18:15 3-5 urtekoentzat

18:15-19:15 6-9 urtekoentzat.

Zumea plaza.

## OSTIRALA 7

**ANDOAIN Dantza**

"Bat" ikuskizuna. Garaikidea.


19:00 Bastero.

**URNIETA Antzerkia**

"Lagun beltz asko", aurre estreinaldia.

19:00 Sarobe. 5 euro.


## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****La vida padre**

Lar., 1. 19:30, 22:00.  
Igandea, 2. 19:30.  
Astelehena, 3.  
19:30, 22:00  
(ikuslearen eguna).

**Tadeo Jones 3**

Larunbata, 1.  
17:00.  
Igandea, 2.  
17:00.



## SINOPSIS

**LA VIDA PADRE**

**Zuzendaria:** Joaquin Mazón. **Aktoreak:** Karra Elejalde, Enric Auquer, Lander Otaola, Maribel Salas, Gorka Aguinagalde, .  
**Herrialdea:** Espainia. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 92 minutu.

Gipuzkoak etorkizunerantz aurrera egiteko **ticketa. BAI.**

TicketBAI, Gipuzkoa osoa batzen duen tresna aurreratua eta solidarioa, etorkizuneko erronkei aurrea hartzeko.

[gipuzkoa.eus/ticketbai](http://gipuzkoa.eus/ticketbai)

**ticketBAI**  
GIPUZKOA ETORKIZUNERANTZ

**ETORKIZUNA**  
OSAN  
19. Julioa

ZORION AGURRAK



ANDOAIN  
**Maddi Idigoras Alfageme**  
Zorionak Maddi!  
Ondo ondo ospa dezazula eguna. 12 muxu potolo etxekoan partez!!



ANDOAIN  
**Zorionak Potto!!**  
Irailaren 30ean 17 urte!! Disfrutatu egunaz eta egin aurre bizitzari irrifartsu!! Maite zaitugu. Etxekoak.



ANDOAIN  
**Zorionak Bikote!**  
Aitonak irailaren 8an 82 urte eta Maddik irailaren 15ean 12 urte! Eskerrik asko oparitzen dizkiguzuen momentuengatik. Maite zaituztegu. Etxekoak.



ANDOAIN  
**Xabat eta Galder Ormaetxea Lasa!**  
Gure pareak iada 9 urte. Zorionak bikote eta muxu haundiak familiaren partez.

MERKATU-TXIKIA

OSTALARITZA

Urnietako Idiazabal kaleko Iparralde tabernan zerbitzari bila ari dira, lan egun erdiz aritzeko. **667 265 569** (Marlenis).

IRAKASKUNTZA

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantseseko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak, 20 euro orduko. **693 692 823 - 665 719 827**

Ingelesko klase partikularrak ematen dituen norbait behar dut 9-11 urte bitarteko haurrei eskolak etxean emateko. **650 34 11 08**

SALGAI

'Antiescaras' koltxoia salgai. **660 235 259**.  
**Etxabea** salgai Andoainean, altuera handikoa. 47 m<sup>2</sup>. Sukaldea eta komuna ditu. Uraren toma mangerarekin. **667 058 641**.

EROSI

Lursaila erosiko nuke Asteasu, Zizurkil, Larraul aldean. **671 31 68 63**.



Urtxintxa elkarteak bideratuko du Udalaren ekimena. UDALA

"Parketarrak", euskara sustatzeko ekimena

Datozen asteetan aisialdiari lotutako hitzorduak Zumea plazan eta Goikoplazan

Erredakzioa ANDOAIN

Jolasaren bitartez eta aisialdian euskararen erabilera bultzatu nahi duen ekimena da Parketarrak izenekoa. Joan den udaberrian abiatu zen eta urriaren eta azaroan zehar Goikoplazan eta Zumea plazan jarraipena izango du. Hitzorduak hauexek dira: urriak 4, 11, 18 eta 25 Goikoplazan eta urriak 5, 19 eta 26 eta azaroak 2 Zumea plazan. 3-5 urte bitartekoekin hasiko dute arratsaldea (17:15-18:15), eta 6-9 urtekoekin osatuko dute bigarren ordua (18:15-19:15). Parte hartzeko ez da alde zuzenik izenik eman behar, plazara bertara joatea nahikoa izango da.

ODOL-EMAILEAK



HURRENGO HITZORDUAK

Urriak 10, astelehena. ANDOAIN  
**16:30-20:30. Anbulatorioa**

"Ezetz jakin! lehiaketa"

Urnietako AEK euskaltegiak lehiaketa bat martxan jarri du. Euskaltegiari eta Urnietari buruzko hainbat galdera erantzun beharko dira. Parte hartzeko, QR kodea irakurri beharko dute herritarrek. 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute lehiaketan.



KOMUNITATEA

ZUMEATARRA ELKARTEA ANDOAIN

50. urteurreneko ospakizuna

Zumeatarra elkartearen 50. urteurreneko ekitaldiei bukaera emanez, urriaren 8an, bazkaria egitekoak gara. Santa Kruz ermitan, eguerdiko 12:00etan ospatuko den mezarekin emango diogu hasiera egunari. Elizkizunean, falta diren bazkideak oroitu

nahi ditugu. Ondoren, bazkideen argazkia egiteko asmoa dugu, eguraldi onarekin Espigoian eta txarrarekin Zumea plazako estalpean. 14:30ak aldera, elkartearen bertan, izango da bazkaria, Andoni Arabaolazaren taldeak prestatuta.

**Parketarrak**  
Egunik onenak elkarrekin euskaraz jolasean

**Andoain**  
Urriak 4, 11, 18 eta 25 asteartek  
**Zabu-Zibu** (3-5 urte) 17:15  
**Txirrintxon** (6-9 urte) 18:15  
Goikoplazan

Urriak 5, 19, 26 eta azaroak 2 asteazkenak  
**Zabu-Zibu** (3-5 urte) 17:15  
**Txirrintxon** (6-9 urte) 18:15  
Zumea plazan

ANDOAINGO USALA  
ANDOAINARRIA HIRIARTEZ

**hezen**  
aisialdi euskaltzalea

# Andoaingo emakumeentzako Jabekuntza Eskola

## UDAZKENEKO IKASTAROAK

Izen-emateko, eskaneatu  
QR kode hau telefonoarekin edota  
jabekuntza.andoain.eus gunean



- Kosmetika naturala lantegia I (hasiera)
- Kosmetika naturala lantegia II (aurreratua)
- Nire bizitza berreskuratzen
- Batukada feminista
- Hilekoaren zikloa eta konpresen sorkuntza
- Konfiantza sortu eta elikatu
- Oinarrizko lantegi mekanikoa
- Autodefentsa feminista
- Serigrafia lantegia
- Nire gorputza gudu zelai bat da (lodifobia lantzeko lantegia)
- Jatorri anitzetako emakumeen elkargune multikulturala



ANDOAINGO UDALA



(Doshermanos)

## BI ANAI

BERNARDO ATXAGA - IMANOL RAYO

## PROIEKZIOA ETA SOLASALDIA

Urriak 14, ostirala. 19:30  
Bastero, auditorioa. 3€

Bernardo Atxagaren liburu ezaguna zinemara eramane zuten Imanol Rayo zinema zuzendari nafarrak. ESCIVIn ikasi eta gero, bere lehen film luzea osatu zuten. Filmaren emankizun berezia eskainiko da, 35 milimetroko formatuan proiektatuz. Segidan, biekin hitz egiteko aukera izango da Garazi Kamio idazleak gidatutako solasaldian.

OHARRA: Aiurriko harpideduna al zara? E-posta idatzi [idazkaritza@aiurri.eus](mailto:idazkaritza@aiurri.eus) helbidera eta gonbidapen bikoitza jasoko duzu. Emailak iritsi ahala, hurrenkera horretan banatuko dira gonbidapenak agortu arte.



**bastero**  
KULTURGUNEA

**AIURRI**